

M.U.k titanioaren eta nikelaren erabilera eta horien kostuak nola txikitzeko jardunaldia antolatu du

2013/04/18

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak Titanio eta Nikel Aleazioen Mekanizazioari buruzko jardunaldia antolatu du gaur, 09:00etatik 18:00etara. Jardunaldia Garaia Berrikuntza Gunean (Arrasaten) izango da, eta bertan nazioarteko dozena-erdi adituk hartuko dute parte, kontsumo-joerei, mekanizazio-estrategiei eta mekanizazioaren egonkortasunari buruz eztabaidatzeko. Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile nagusi Vicente Atxak, Mondragon Unibertsitateko Errendimendu Handiko Mekanizazioaren ikerkuntza-lerroko koordinatzaile Pedro Arrazolak eta HEGAN Clusterreko zuzendari José Juez Langarak emango diote hasiera jardunaldiari.

Titanioa eta nikela oinarri duten materialen kontsumoa nabarmen handitzen ari da munduan hainbat sektoretan, hala nola automozioan, energian, medikuntzan, elektronikan, bioteknologian... Dena dela, azken urteotan material horien kontsumoaren hazkunderik handiena izan duen sektorea aeronautika da, inondik ere. Hala ere, mekanizazioaren bidez horiek eraldatzea hain zaila denez, alde hori hobetzeko etengabe ikertu beharra dago, horien prozesatzeari lotutako kostuak murrizte aldera.

Topaketaren helburua alor horretako enpresen arteko harremanak sortzeko eta berrikuntzak ezagutarazteko foroa izatea da. Ildo horretan, aeronautika-sektorean erabilitako titanio- eta nikel-aleazioen inguruko azken joerak azalduko dira. Gai horiek guztiak jorrazteko nazioarteko hizlari ospetsuek hartuko dute parte jardunaldian. Frantziako, Erresuma Batuko, Alemaniako, Suediako, Japoniako... unibertsitate eta erakundeetako adituak dira, eta esperientzia luzea dute titanio- eta nikel-aleazioen mekanizazioan. Hain zuzen ere, Dortmund eta Birminghameko Unibertsitateko eta ITP, TIMET eta DMG/Mori-Seiki (Japonia) enpresetako ikertzaileak daude hizlarien artean.

Jardunaldian titanioaren eta nikelaren mekanizazioari buruzko ikuspegi zabala jorratuko dute. Hala, kontsumo-joerak, mekanizazio-estrategiak, titanioaren mekanizagarritasuna eta mekanizazioaren egonkortasuna landuko dituzte, besteak beste. Era berean, teknikari adituen eskutik, erakustaldiak egingo dira Errendimendu Handiko Mekanizazioko laborategietan. Horietan, alderdi zientifikoak jorratzeaz gain, industria-erabilera zuzena duten entseguak egingo dira.



Mekanizatu jardunaldia